



Berrizalea

Euskal Etxea Barcelona

Placeta Montcada 1-3



notícies i berriak

3a. época Número 35

2006ko Ekaina



:: laburrak ::

LUMAGORRI
GAYFESTA
16 de JUNY 22:30
EUSKAL ETXEA



LumagorriFesta

Badator Euskal Etxean egiten dugun festarik zoroenaren bigarren edizioa: Lumagorri-festa-III! Goza itzazue prestatu dizkizuegun sorpresa guztiak datorren ekainaren 16an, ostiralarekin, 22:00etatik aurrera. Zatozte!

EuskalFestaMacissars-en

Tradizio bihurtu den festa honetan euskara ikasleek hartzen dute parte. Ekainaren 17an izango da 14:30etik aurrera, eta bazkaria, dantzak eta ezusteko atsegín ugari izango dira. Ez ezazue hutsik egin!

estatukomustxapelketa

Ekainaren 9-10-11 egunetan estatu mailako mus txapelketa jokatu da Euskal Etxean. Madril, Valladolid, Valentzia eta Mallorcako euskal etxeetako ordezkariak arituko dira bertan, Bartzelonako Euskal Etxekoekin batera. Txapelketa irabazten duena udazkenean jokatuko den munduko txapelketarako sailkatuko da. Zorte on guztioi!

Uda euskaraz!

Euskal Etxeak euskara ikasi edo sakontzeko aukera ugari eskaintzen dizkizue udara honetarako:



CIKASTARD TRINKOAK- 16 orduko ikastaroak, astelehenetik ostiralera 2 ordu egunean. Maila guztiak eskaintzen ditugu, taldeko gutxienez 5 lagunek izena ematen badute.

- :: Uztailaren 3tik 13ra.
- :: Abuztuaren 7tik 17ra.
- :: Irailaren 4tik 14ra.

Ordutegiak: 17etatik 19etara edo 19:30etik 21:30era.

Matrikula: 50 bazkideentzat eta 65 bazkide ez direnentzat.

BARNETEGIA. Udara honetarako ere Barnetegia antolatu dugu euskaran sakon murgildu nahi duten guztientzat. Bi maila eskainiko ditugu: bata euskaraz hitz egiteko gai direnentzat, eta bestea pausu hori ematear daudenentzat. Barnetegia Diartzunen egingo dugu uztailaren 14tik 22ra, eta euskara eskolez gain, hainbat jarduera egingo ditugu: tailerrak, kontzertuak, txangoak... euskal kultura nahiz euskarara ahalik eta modu naturalenean hurbiltzeko.

Barnetegia matrikula 250 -koa da bazkideentzat eta 300 -koa bazkide ez direnentzat.

Ikastaro trinkoetan nahiz Barnetegian izena eman nahi baduzue, Zabalgunera jo behar duzue astelehenetik ostiralera 17etatik 21etara edo larunbatetan 10etatik 13etara. Ez lo geratu, lekuak mugatuak dira eta!

notícies i berriak



Euskal Etxea

Ekainaren 8a: Ezohiko Batzar Orokarra

Hurrengo ostegunean, ekainaren 8a, arratsaldeko 20.00etan

Dakizuen bezala, datorren ekainaren 8an, ostegunarekin, Euskal Etxeko bazkide guztioi Zuzendaritza Batzorde berria hautatzea dagokigu. Hori dela eta, egungo Zuzendaritza Batzordeak Ezohiko Batzar Orokorra deitu du datorren ekainaren 8rako, 20:00etarako lehen deialdian eta 20:30erako bigarrenarekin. Hautagai zerrendak idazkaritzan aurkez ditzakezue estatutuek ezarritako epearen barruan. Guztiak parte hartzera animatzen zaituztegu, eta gogoratu etorri ezin baduzue eskura daukazuela botoa delegatzeko inprimakiak.



* Sopar Social | Afari Soziala



Ekainaren 9a, ostirala

Izen emateak ekainaren 7a baino lehen

Datorren ekainaren 9an, ostiralarekin, 21:00etan gure ohiko afari soziala egingo dugu.

Haragiz Beteriko Piperrak >> Arrai freskoa >> pantxineta
Ardoa, kafea eta patxarana

Guztia 12 -ren truke bazkideentzat eta 18 -ren truke bazkide ez direnentzat. Gogoratu etorri nahi baduzue aldeztu aurretik erreserbatu behar duzuela lekua, 93.3102200 telefonora deituta edo Zabalgunetik pasata ekainaren 7a baino lehen. Menuan aldaketarik behar izanez gero, erreserba egiten duzuen unean jakinarazi behar duzue.

Cultura | Kultura



Literaldia 2006

Literaldiaren Bigarren Urte Hau Ere Uso Arrakastazua Izan Da



Bukatu da Euskal Etxeak antolatutako literatura zikloaren bigarren edizioa. Joan den maiatzaren 19an egin genuen Bertso afari zorgarria izan zen Literaldiaren azken ekitaldia. Antolatzaile taldeak balorazio benetan positiboa egin du, antolatutako ekitaldiak maila altukoak izan direlako eta jende ugari bertaratu delako. Unai Elorriaga eta Castillo Suarez idazleek egin zitzaizkien harrera ona azpimarratu zuten. Egoitz Lasa eta Sergi Garciak eskaini zituzten monologo gauak ikuttu berria eman zion zikloari, eta jendeak eskertu egin zuen fiabardura informal eta atsegin hori. Musika eta literatura uztartzen dituzten Kontrola eta Mugaldekoak ikuskizunek ere kritika bikaina jaso zuten. Gauzak horrela, zalantzarik ez izan datorren urtean gehiago izango dugula!

Ikasturte Amaierako Festa

Udarari Hasiera Emateko 17an Festa Izango Dugue

Tradizio bihurtu den festa honetan euskara ikasleek hartzen dute parte. Ekainaren 17an izango da 14:30etik aurrera, eta bazkaria, dantzak eta ezusteko atsegin ugari izango dira. Ez ezazue hutsik egin!



euskal musika



Kontzertuen Agenda Itzalakuzenean



Datorren ekainaren 2an, ostiralarekin, 20:30ean formatu txikiko kontzertuaz gozatzeko aukera izango dugu gurean. Oraingoan, Lekunberriko "Itzalak" taldea arituko zaigu, eta, ohi duten moduan, Mikel Urdangarin eta J.C. Perez euskal kantarien bertsoak kantatuko dizkigute. Gustatuko zaizue. Beren abestiak web orrialde honetan dituzue entzungai: www.itzalak.com.

03/06. Anari
(Primaverasound-Barcelona)

03/06
Sagarroi (Martorell)

03/06.- Skalaria (Reus)

17/06.- Skalaria (Prats de Lluçanès)

24/06.- The Solanos
(Sant Joan de Vilatorrada)

30/06.- Sorkun
(Festival Senglar Rock)

28/07.- Berri txarrak (Viladamat)

29/07.- Berri txarrak (Cambrils)

04/08.- Berri txarrak (Argentona)

18/08.- Gose (Barcelona)

26/08.- Sagarroi (Cervera)

26/08.- The Solanos
(Festes de Sants-Barcelona)

